

Giza Eskubideak / Derechos Humanos / Human Rights  
Tel. +34 943 481 975 | [zinema\\_gizaeskubideak@donostia.eus](mailto:zinema_gizaeskubideak@donostia.eus)

Zine Unitatea / Unidad de Cine / Film Unit  
Tel. +34 943 481 157 | [cinema\\_cinema@donostia.eus](mailto:cinema_cinema@donostia.eus)

[www.zinemaetagizaeskubideak.eus](http://www.zinemaetagizaeskubideak.eus) | [www.cineyderechoshumanos.eus](http://www.cineyderechoshumanos.eus)

## 30 FILM LUZE, 23 FILM LABUR, 4 ERAKUSKETA ETA HAINBAT JARDUERA DONOSTIAKO 16. GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIAN

**Apirilaren 20tik 27ra bitarte egingo da**

Petra Volpe suitzarrak zuzendutako **El orden divino** (*Die göttliche Ordnung*, 2017) filmak emango dio hasiera Donostiako Udalaren Giza Eskubideen Sailak eta Donostia Kulturak antolatutako **Donostiako Giza Eskubideen 16. Zinemaldiari** datorren apirilaren 20an, Victoria Eugenia Antzokian.

Zinemaldia apirilaren 27an amaituko da Laurent Cantet frantziarraren **El taller de escritura** (*L'Atelier*, 2017) filmarekin. Amaiera-ekitaldian, zinemagileak Zinemaldiaren sari berezia jasoko du bere ibilbideagatik.

Zinemaldiak Gipuzkoako Foru Aldundiaren (Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiaren bitartez) eta Eusko Jaurlaritzaren (Bake eta Bizikidetzaren arloaren bitartez) babesa dauka. Gainera, Euskadiko GGKEen Koordinakundea, CEAR, Unicef, Gehitu, Amnesty International, Acnur, SOS Arrazakeria edo FiSahara bezalako entitateen eta gobernuz kanpoko erakundeen laguntza dauka.

### HELBURUAK

Giza Eskubideen Zinemaldiak hamasei urte bete ditu. Aurten, 31 nazionalitateko 53 film proiektatuko dira guztira (30 film luze eta 23 film labur), eta 4 erakusketa daude programatuta. Halaber, errealitate birtuala eta giza eskubideak konbinatzen dituzten ikus-entzunezko pieza batzuen erakusketa bat, emakumeen salerosketari buruzko hitzaldi bat (dokumentalen zuzendari Mabel Lozanoren eskutik) eta SOS Arrazakeriaren **NoraEZe**an: **Artea, babesleku eta zubi** erakusketaren inguruko hainbat jarduera egingo dira.

Programazio hori, beti bezala, protagonisten, zinemagileen eta landutako gizarte-gaietan adituak diren pertsonen mahai-inguruekin eta ikastetxeentzako goizeko saioekin osatuko da.

Zinemaldia hiriko auzoetara iritsiko da aurten ere, eta doako proiektzioak egingo dira kultur etxeetan. Aurten, gainera, Tabakalerako eskaintza zabaldu egingo da zinema eta argazkigintzako tailer batekin (UBIK liburutegian) eta bi zinema-saiorekin. UPV-EHUren unibertsitate-campusean ere erakusketa bat egingo da.

Eta, hori guztia, xede berarekin: gizateriaren erronka, lorpen eta gabezia handiei buruzko ikuspegi kritiko, askotariko, solidario eta erreibindikatzailer bat eskaini eta sortzea.

Zinemaldiaren **helburua** honako hau da: **giza eskubideen defentsaren eta urraketaen hainbat alderdiren inguruko gogoeta, sentsibilizazioa eta eztabaida** bultzatzea, eta justiziarekin eta gizarte-berdintasunarekin konprometitutako herritar aktiboak sustatzen laguntzea.

Giza Eskubideak / Derechos Humanos / Human Rights  
Tel. +34 943 481 975 | [zinema\\_gizaeskubideak@donostia.eus](mailto:zinema_gizaeskubideak@donostia.eus)

Zine Unitatea / Unidad de Cine / Film Unit  
Tel. +34 943 481 157 | [cinema\\_cinema@donostia.eus](mailto:cinema_cinema@donostia.eus)

[www.zinemaetagizaeskubideak.eus](http://www.zinemaetagizaeskubideak.eus) | [www.cineyderechoshumanos.eus](http://www.cineyderechoshumanos.eus)

## SARRERAK ETA ABONUAK

Bada **22 euroko** abonu bat Victoria Eugeniako saio guztiak ikusteko. Abonuak **apirilaren 13tik, ostirala**, izango dira salgai, Victoria Eugeniako leihatiletan soilik.

Saio bakoitzerako sarrerak egunean bertan jarriko dira salgai, **4,50 euroren** truke. Victoria Eugeniako leihatiletan ez ezik Internet bidez ere erosi ahal izango dira saioetarako sarrerak.

## FILM LUZEAK

Aurten, **20 film luze** hartuko dute parte Zinemaldiaren Sail Ofizialean. Munduko alde guztietatik iritsitako filmak dira, eta askotariko gaiak lantzen dituzte. Urtero bezalaxe, mahai-inguruak egingo dira ikusleekin, 19:30eko saioetan. Mahai-inguru horietan, aurkeztutako filmen taldeetako kideek, landutako gaietako espezialistek, erakunde eta GKEen ordezkariak eta abarrek hartuko dute parte.

*jito herriaren gizarteratzea eta errekonozimendua*

1. **A CIAMBRA** (2017). Jonas Carpignano. Italia-AEB-Alemania-Frantzia

*Adingabeen harrera*

2. **ALICIA** (2017). Maasja Ooms. Herbehereak (**SOLASALDIA**)

*Bizi-sena gerra-garaian*

3. **ALMA MATER** (Insyriated, 2017). Philippe Van Leeuw. Frantzia-Belgika-Libano

4. **BEAUTY AND THE DOGS / AALA KAF IFRIT** (2017). Kaouther Ben Hania. Tunisia-Frantzia-Suedia-Norvegia-Libano-Qatar-Suitza

*Justizia Leheneratzailea indarkeria matxistaren aurrean*

5. **A BETTER MAN** (2017). Attiya Khan, Lawrence Jackman. Kanada (**COLOQUIO**)

*Tortura eta tratu txarrak*

6. **LA CIFRA NEGRA** de la violencia institucional (2018). Ales Payá. Espainia (**SOLASALDIA**)

*Herritarren kazetaritza informazio-blokeoaren aurrean*

7. **CITY OF GHOSTS** (2017). Matthew Heineman. AEB

*Lurren usurpazioa Afrikan*

8. **DEAD DONKEYS FEAR NO HYENAS** (2017). Joakim Demmer. Suedia-Alemania-Finlandia

*Frankismoaren biktimak eta Justizia Unibertsala*

9. **DESDE EL OTRO LADO DEL CHARCO** (2017). Carlos Suárez, Isabel Suárez, Pablo Giménez. Espainia (**SOLASALDIA**)

*Europak bere mugak blindatu ditu*

10. **DJAM** (2017). Tony Gatlif. Frantzia-Grezia-Turkia

Giza Eskubideak / Derechos Humanos / Human Rights  
Tel. +34 943 481 975 | [zinema\\_gizaeskubideak@donostia.eus](mailto:zinema_gizaeskubideak@donostia.eus)

Zine Unitatea / Unidad de Cine / Film Unit  
Tel. +34 943 481 157 | [cinema\\_cinema@donostia.eus](mailto:cinema_cinema@donostia.eus)

[www.zinemaetagizaeskubideak.eus](http://www.zinemaetagizaeskubideak.eus) | [www.cineyderechoshumanos.eus](http://www.cineyderechoshumanos.eus)

*Autokudeaketan eta lankidetzan oinarritutako supermerkatuak*

11. **FOOD COOP** (2016). Tom Boothe. Frantzia (**SOLASALDIA**)

*Askatasuna eta demokrazia arriskuan*

12. **FREEDOM FOR THE WOLF** (2017). Rupert Russell. Alemania

*Migrazioa eta asiloa: ukatutako eskubideak*

13. **MAREA HUMANA** (*Human Flow*, 2017). Ai Weiwei. Alemania-AEB-China

*Gaza bloketaua: bizitzeko egokia ez den lekua*

14. **MUHI – GENERALLY TEMPORARY** (2017). Rina Castelnuevo-Hollander, Tamir Elterman. Israel-Alemania

*Down sindromea duten pertsonen eskubideak*

15. **LOS NIÑOS** (2016). Maite Alberdi. Txile-Herbehereak-Frantzia

*Feminismoa, inoiz baino biziago*

16. **EL ORDEN DIVINO** (*Die göttliche Ordnung*, 2017). Petra Volpe. Suitza

*Pederastia Elizan*

17. **SHOOTBALL** (2017). Fèlix Colomer. Espainia (**SOLASALDIA**)

*Eskola-jazarpena*

18. **EL SILENCIO ROTO** (2017). Piluca Baquero. Espainia (**LEHIAKETATIK KANPO**)

*Perspektibarik gabeko gazteen erretratua*

19. **EL TALLER DE ENSEÑANZA** (*L'Atelier*, 2017). Laurent Cantet. Frantzia (**LEHIAKETATIK KANPO**)

*Korsikaren independentziaren aldeko biolentzia terrorista*

20. **UNE VIE VIOLENTE** (2017) Thierry de Peretti. Frantzia

## SAIO BEREZIAK

### DONOSTIAKO ESPETXEA

Giza Eskubideen Zinemaldiak mota honetako kultura-ekimenetatik baztertuta dauden kolektiboetara iristeko aurreikusita dituen jardueren artean, **Richard Oribe, al otro lado de las medallas** (2016) filma proiektatuko da, eta mahai-inguru bat egingo da ondoren, Donostiako Espetxean. Mahai-inguru horretan, Richard Oribek berak eta filmaren zuzendari Iñigo Asensiok hartuko dute parte.

### TABAKALERA

**DID YOU WONDER WHO FIRED THE GUN?** (2017). Travis Wilkerson. AEB

**EL PACTO DE ADRIANA** (2017). Lissette Orozco. Txile

## FILM LABURREN LEHIAKETA

1. **3 cámaras robadas** (3 *Stolen Cameras*, 2017). RÅFILM, Equipe Media. RASD-Suedia
2. **Abandon** (2017). Varun Chopra. AEB
3. **Areka** (2017). Atxur Animazio Taldea. Euskadi
4. **Boléro Paprika** (2017). Marc Ménager. Frantzia
5. **Carmen** (2017). Natalia Preston. Espainia-Alemania
6. **La Costa Dorada** (2016). Noémi Gruner. Frantzia-Belgika
7. **Estilhaços** (2016). José Miguel Ribeiro. Portugal
8. **Euna** (2017). Seung-Hyun Chong. Alemania-Hego Korea
9. **FIFO** (2017). Sacha Ferbus. Belgika
10. **Kapitalistis** (2017). Pablo Muñoz Gomez. Frantzia-Belgika
11. **Liebe und Revolution** (2017). Gabriel Tempea. Austria
12. **Manila High – Life in Company with Death** (2017). Anders Palm Olesen, Simone Andrea Gottschau. Danimarka
13. **Les Misérables** (2017). Ladj Ly. Frantzia
14. **Primeros días** (2017). Luis E. Pérez. Espainia
15. **La pureza** (2018). Pedro Vikingo. Espainia
16. **Tarde para el recreo** (2017). Pablo Malo. Espainia
17. **El viaje a Islandia** (2017). César Vallejo. Espainia

## KULTUR ETXEETAKO ZIKLOA

Aurten, hainbat erakunde eta GKEren eskutik (Euskadiko Gazteriaren Kontseilua, Mugarik Gabeko Medikua, Derecho a Morir Dignamente eta abar), zinemaldia Donostiako Kultur Etxeetara iritsiko da, eta honako doako proiektzio hauek eskainiko dira:

*Egia K. E.*

**ZUK** (2017). Unax Blanco. Euskadi

80 minutuko dokumentala da, eta CEAR-Euskadi, Zaporeak, Ongi Etorri Errefuxiatuak eta Itsas Laguntza Humanitarioa elkarrekin kideek parte hartzen dute bertan.

*Okendo K. E. / Laguntzailea: Duintasunez Hiltzeko Eskubidea – Gipuzkoa*

**AMOR** (*Amour*, 2012). Michael Haneke. Austria-Frantzia-Alemania

Film honek Urrezko Palma lortu zuen Cannesko Zinemaldian. Adineko bikote bat da protagonista. Emakumeak hemiplegia bat izan ondoren, senarrak zaindu behar du.

*Lugaritz K. E. / Laguntzailea: (H)emen Her(E) Elkartea*

(H)emen Her(E) Elkartearen ekimenez eta ikus-entzunezkoen munduko hainbat emakume profesionalak emakumeek arte eszenikoen eta ikus-entzunezkoen arloan egiten duten lana ikusarazteko xedearekin sustatuta, honako film labur hauek eskainiko dira: **Talka**, Leire Egañarena, **Betiko**, Arantza Ibarrena, **Night Shift**, Izaskun Arandiarena, **Homoamak**, NEUKE Konpainiarena, **Samina**, Kristina Zoritarena, eta **Fifty Rupees Only**, Nagore Eceizarena.



Giza Eskubideak / Derechos Humanos / Human Rights  
Tel. +34 943 481 975 | [zinema\\_gizaeskubideak@donostia.eus](mailto:zinema_gizaeskubideak@donostia.eus)

Zine Unitatea / Unidad de Cine / Film Unit  
Tel. +34 943 481 157 | [cinema\\_cinema@donostia.eus](mailto:cinema_cinema@donostia.eus)

[www.zinemaetagizaeskubideak.eus](http://www.zinemaetagizaeskubideak.eus) | [www.cineyderechoshumanos.eus](http://www.cineyderechoshumanos.eus)

*Tomasene K. E. / Laguntzailea: Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK)*

**GAZTEON AUKERA: ELKARBIZITZAREN ERRONKA** (2017). Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK). Euskadi

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) Eusko Jaurlaritzaren Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiarekin lankidetzan bake positiboaren eraikuntza aktiboan egindako lana erakusten du dokumental honek.

*Intxaurrondo K. E. / Laguntzailea: Médicos Sin Fronteras*

Bi film labur ikusi ahal izango dira: **Siento haberme ahogado** film labur animatua, Mediterraneoko ibilbideari ekiten dioten errefuxiatuek bizi duten arbuioa erakusten duena; eta **No son un objetivo** dokumentala, gerra-eremuetan etengabe gertatzen diren bonbardaketen berri ematen duena. Halaber, Mugarik Gabeko Medikuek erakundearen sorrera azaltzen duen **De la acción a la palabra** erakusketa antolatu da.

*Aiete K. E. / Laguntzailea: Filmazpit*

**UDAKO AMODIO BAT** (*La Belle saison*, 2016). Catherine Corsini. Francia-Bélgica

*Loiola K. E. / Laguntzailea: Filmazpit*

**AINZA** (*Slava*, 2016). Kristina Grozeva, Petar Valchanov. Bulgaria-Grecia

Zineuskadik euskarazko azpitoluak dituzten filmak sustatzeko helburuarekin finantzatzen duen Filmazpit programarekin lankidetzan, Aieteko eta Loiolako Kultur Etxetan film bana proiektatuko da jatorrizko bertsioan eta euskarazko azpitoluekin: **Udako amodio bat** (Aieteko Kultur Etxean) eta **Aintza** (Loiolako Kultur Etxean).

## GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIAREN SARIA LAURENT CANTET

Laurent Cantet (Melle, 1961) Frantziako azken bi hamarkadetako zinemagilerik garrantzitsuenetako bat da. Haren filmak munduko zinemaldirik ospetsuenetan proiektatu dira, eta askok saria lortu dute. Guztiek Europako egungo obrarik interesgarri eta koherenteetako bat osatzen dute. Canteten zinema ausarta eta konprometitua da, eta egungo mundua jaso du bere irudietan beti. Canteten filmografian, bakardadea, inkomunikazioa, migrazioak, Europako egungo egoera politikoa, lan-munduko desparekotasunak, terrorismoa eta kultura-aniztasuna lantzen dira hasiera-hasieratik. Horren lekuko ditugu honako hauek: **Les Sanguinaires** (1997), **Ressources humaines** (1999) eta **L'Emploi du temps** (2001) film bortitza.

**Vers le sud** (2005) filmean XX. mendeko turismora hurbildu ondoren, bere arrakastarik handienetako bat lortu zuen **Entre les murs** (2008) filmarekin. Filmak Frantziako auzune marjinal batean kokatutako institutu kulturantzun baten deskribapena egiten du. Nerabe banda bati buruzko **Foxfire** (2012) filmarekin, 50eko hamarkadako Ameriketako Estatu Batuetara hurbildu zen, eta **7 días en La Habana** (2012) film kolektiboan, berriz, Kubara. Ondoren, **Retour à Ithaque** (2014) filmean, denboraren igarotzeari eta idatzitako bizitzari buruzko gogoeta egin zuen, Leonardo Padurarekin batera. Azkenik, **L'Atelier** (2017) filmean (azkena orain arte), gazteen eta hezkuntzaren mundura itzuli da.

Giza Eskubideak / Derechos Humanos / Human Rights  
Tel. +34 943 481 975 | [zinema\\_gizaeskubideak@donostia.eus](mailto:zinema_gizaeskubideak@donostia.eus)

Zine Unitatea / Unidad de Cine / Film Unit  
Tel. +34 943 481 157 | [cinema\\_cinema@donostia.eus](mailto:cinema_cinema@donostia.eus)

[www.zinemaetagizaeskubideak.eus](http://www.zinemaetagizaeskubideak.eus) | [www.cineyderechoshumanos.eus](http://www.cineyderechoshumanos.eus)

## SARIAK

### *IKUSLEEN SARIA FILM LUZE ONENARI*

Ikusleek Sail Ofizialeko 16 film luzeen artean aukeratuko dute.

### *GAZTE EPAIMAHAIAREN SARIA FILM LABUR ONENARI*

Epaimahai Gazte batek, 150 partaide inguruk osatutakoa, Film Labur Onenaren Saria ematen du urtero, 3.000 eurokoa.

### *AMNESTY INTERNATIONAL SARIA*

Irabazlea Amnesty International erakundeko kideek eta ikus-entzunezkoen sektoreko profesionalak osatutako epaimahai batek erabakiko du.

## GAIK ETA SOLASALDIAK

Zinemaren munduan eta giza eskubideen arloan lan egiten duten adituak Donostian izango dira egunotan eta aurkezpen eta solasaldietan parte hartuko dute ikusleekin batera. Aztertuko diren gaien inguruko hausnarketa bultzatzeko zinemaldiak hainbat testu argitara emango ditu bai bere webgunean ([www.zinemaetagizaeskubideak.eus](http://www.zinemaetagizaeskubideak.eus)) bai paperean ere. Proiekzio aretoen sarreran bertan banatuko dira testuok. Hauexek izango dira 16. edizioan jorratuko diren gaiak:

### Solasaldia izango duten gaiak

- Adingabeen harrera (**Alicia**)  
**Xabier Euzkitze** (harrerako aita)  
**Patxi Agiriano** (Haur eta Nerabeen Babeserako Zerbitziburua, Gipuzkoako Foru Aldundian)  
**Aitziber García** (Aldundiaren zaintzapean dagoen eta Arrakasta programan parte hartzen duen gaztea)
- Tortura eta tratu txarrak (**La cifra negra**)  
**Ales Payá** (filmaren zuzendaria)  
**Paco Etxeberria** (forentsea / médico forense)  
**Axun Lasa** (torturatua)
- Justizia Leheneratzailea indarkeria matxistaren aurrean (**A Better Man**)  
**Idoia Igartua** (Bitartekaritza Judizialeko Zerbitzuan jurista)  
**Jorge Freudenthal** (genero indarkeriagatik zigortutakoak birgizarteratzeko Gakoa programaren arduraduna)  
**Gema Varona** (Gakoa programaren kanpoko ebaluatzailea)
- Frankismoaren biktimak eta Justizia Unibertsala (**Desde el otro lado del charco**)  
**Isabel Suárez** (filmaren zuzendaria)  
**Josu Ibargutxi** (Frankismoaren krimenen aurkako Euskal Plataformakoa)  
**Ana Messuti** (Argentinako Kereilako abokatua)



Giza Eskubideak / Derechos Humanos / Human Rights  
Tel. +34 943 481 975 | [zinema\\_gizaeskubideak@donostia.eus](mailto:zinema_gizaeskubideak@donostia.eus)

Zine Unitatea / Unidad de Cine / Film Unit  
Tel. +34 943 481 157 | [cinema\\_cinema@donostia.eus](mailto:cinema_cinema@donostia.eus)

[www.zinemaetagizaeskubideak.eus](http://www.zinemaetagizaeskubideak.eus) | [www.cineyderechoshumanos.eus](http://www.cineyderechoshumanos.eus)

- Autokudeaketan eta lankidetzan oinarritutako supermerkatuak (**Food Coop**)  
**Philippe Baudry** (Parisko La Louve kooperatibako ordezkaria)  
**Jon Leborburu** (Oarso Labore kooperatibako lehendakaria)  
**David Garnatxo** (Iruñeko Landare kooperatibako langilea)  
**Ixabel Cassan** (Baionako Otsokop kooperatibako kidea)
- Pederastia Elizan (**Shootball**)  
**Fèlix Colomer** (filmaren zuzendaria)  
**Manuel Barbero** (abusuak jasandako semearen aita)  
**Alberto Barandiaran** (*Ez duzu abusatuko* Euskal Elizan pederastiari buruz liburuaren egileetako bat)

### Jorratuko diren beste gaiak

- Askatasuna eta demokrazia arriskuan
- Feminismoa, inoiz baino biziago
- Migrazioa eta asiloa: ukatutako eskubideak
- Sexu-indarkeria: biktima erruduntzat hartzea
- Korsikaren independentziaren aldeko biolentzia terrorista
- Ijito herriaren gizarteratzea eta errekonozimendua
- Down sindromea duten pertsonen eskubideak
- Bizi-sena gerra-garaian
- Lurren usurpazioa Afrikan
- Herritarren kazetaritza informazio-blokeoaren aurrean
- Gazako Zerrenda: bizitzeko egokia ez den lekua
- Europak bere mugak blindatu ditu
- Eskola-jazarpena
- Perspektibarik gabeko gazteen erretratua

### HAUR ETA GAZTETXOENTZAKO SAIOAK

Donostiako eskoletako ikasleek goizeko saioetara joateko aukera izango dute. Aurreko edizioetan bezala, helburu hezitzaile eta didaktikoak jarraituz programatzen dira saiook, giza eskubide urraketak ezagutuz gain, haiekiko sentiberatasuna areago dezaten haur eta gaztetxoek. Edizio honetan **4.500 ikasle** baino gehiago urbilduko dira Victoria Eugenia Antzokira.

Filmetan agertzen diren baloreetan sakontzeko, proiektzioak **gida didaktikoekin** osatuko dira.

- Atsegin izatearen indarra
- **PADDINGTON 2** (2017). Paul King. Erresuma Batua-AEB-Frantzia
- Ametsak bete
- **PAPEREZKO HEGAZKINAK** (*Paper Planes*, 2014). Robert Connolly. Australia-Japonia
- Desberdintasuna onartu
- **HANDIA** (2017). Aitor Arregi, Jon Garaño. Euskadi



Giza Eskubideak / Derechos Humanos / Human Rights  
Tel. +34 943 481 975 | [zinema\\_gizaeskubideak@donostia.eus](mailto:zinema_gizaeskubideak@donostia.eus)

Zine Unitatea / Unidad de Cine / Film Unit  
Tel. +34 943 481 157 | [cinema\\_cinema@donostia.eus](mailto:cinema_cinema@donostia.eus)

[www.zinemaetagizaeskubideak.eus](http://www.zinemaetagizaeskubideak.eus) | [www.cineyderechoshumanos.eus](http://www.cineyderechoshumanos.eus)

## ERAKUSKETAK

### Eskola bideak

apirilak 11 – ekainak 10

Aiete K. E.

UNESCO eta Sipa Press

Eskolentzat bisita gidatuak: [eskolarabideak@gmail.com](mailto:eskolarabideak@gmail.com)

### Giza eskubideei begira

apirilak 16 – maiatzak 18

Carlos Santamaría Zentroa – UPV/EHU (Gipuzkoako Campus)

### Artea eta giza eskubideak, haur eta gazteen XIV. ekitaldia

apirilak 16-29

Zinemaldiaren Informazio Bulegoa (Victoria Eugenia Antzokia)

### Gosearen soinua

apirilak 1-30

FNAC

## JARDUERA GEHIGARRIAK

### Erakusketaren inguruko jarduera paraleloak “NoraEZeana: Artea babesleku eta zubi”

(Okendo K. E. / maiatzak 11 – ekainak 23)

- Javi Julioren hitzaldia, fotokazetaritza sozialari eta errefuxiatuen egoerari buruzkoa (apirilak 18)
- Babesari eta asiloari buruzko gigantografiak, Javi Julio fotokazetariaren eskutik (apirilak 19 & 21)
- Babesari eta asiloari buruzko tailer artistikoa eta koloretako oinatzen ibilbidea (“PasajerAs – NoraEZeana”) Okendo Kultur Etxeraino, Txitxi Orbegozo artistarekin (apirilak 27)

### Errealitate birtualaren eta giza eskubideen inguruko erakustaldia

apirilak 20-22

Zinemaldiaren Informazio Bulegoa (Victoria Eugenia Antzokia)

- **Bashir’s Dream** (2016). Ángel Manuel Soto. AEB
- **Born in Exile** (2017). Charlotte Mikkelsen. Hong Kong-AEB
- **Clouds Over Sidra** (2015). Gabo Arora. AEB
- **Collisions** (2016). Lynette Wallworth. Australia-AEB
- **Forced to Flee** (2017). Zahra Rasool. Qatar
- **A Journey to the Arctic** (2016). Rasmus Törnqvist. Suedia-Norvegia
- **The Last Goodbye** (2017). Gabo Arora, Ari Palitz. AEB





Giza Eskubideak / Derechos Humanos / Human Rights  
Tel. +34 943 481 975 | [zinema\\_gizaeskubideak@donostia.eus](mailto:zinema_gizaeskubideak@donostia.eus)

Zine Unitatea / Unidad de Cine / Film Unit  
Tel. +34 943 481 157 | [cinema\\_cinema@donostia.eus](mailto:cinema_cinema@donostia.eus)

[www.zinemaetagizaeskubideak.eus](http://www.zinemaetagizaeskubideak.eus) | [www.cineyderechoshumanos.eus](http://www.cineyderechoshumanos.eus)

- **Orgullo: un documental en 360** (2017). Javier Escorihuela, Fernando Gómez. Espainia
- **Profesión: niña** (2018). Ignacio Marín. Espainia
- **Seguir con vida: Mediterráneo** (2017). Anna Surinyach. Espainia

### **Gure begien bitartez – Zinema eta argazki lantegia**

apirilak 17-20

Ubik, Tabakalerako sorkuntza liburutegia

### **Prostituzioaren eta emakumeen salerosketaren nagusiak**

Hitzaldia: **Mabel Lozano**

apirilak 23

Koldo Mitxelena